

ALKATE-UDALBURUAREN EBAZPENA,

GUILLERMO LARRAYOZ OTAZU

Ikusirik Alkatetzaren abuztuaren 1eko 313/2024 Ebazpenaren bidez, zeina 2024ko abuztuaren 29ko 176. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, kulturako teknikari plaza bat aldi baterako oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren oinarriak onartu zirela, gazteriako teknikari eginkizunekin.

Deialdiaren 5.1 eta 5.2 oinarriak ikusirik, Alkatetzaren urriaren 2ko 433/2024 Ebazpenaren bidez, onartu eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratu zen, eta bost egun balioduneko epea eman zen erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, eskabideetan egindako akatsak zuzentzeko.

Adierazitako epea igaro denez, bidezkoa da, deialdiaren 5.3 oinarriak xedatzen duen moduan, onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda onartzea eta oposizioko ariketak hasteko eguna, tokia eta ordua adieraztea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikulua ematen dizkidan eskurantzekin bat etorriz,

EBATZI DUT:

1.- Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea. Zerrenda 1. eranskinean ageri da.

2.- Oposizioko lehen ariketa datorren urriaren 24an izanen da, 12:00etan, Ollokiko Esteribar etorbideko 285. Zenbakian dagoen gizarte-etxean.

3.- Honako ebazpena Esteribarko Udalaren web atariko deialdiaren atalean argitaratzeko agintzea.

Erabaki honen aurka errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu eta biharamunetik hasita.

Esteribarren, sinadura elektronikoaren datan.

ALKATEA

Iz: Guillermo Larrayoz Otazu

Nire aurrean, IDAZKARIA

Iz: Julen Ros Induráin

I. ERANSKINA

ONARTUEN ZERRENDA

- Iñigo Fernández de Marticorena Rodríguez.
- Laura Delgado Guillén.
- Maialen Larraya Guillén.
- Irati Goroskieta Abinzano.
- Edurne González Arce.
- Aintzane Mangado Etulain.
- Uxue Pellejero López.

BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA

- Ane Escala Iparaguirre. Eskabidea ez dator bat deialdiaren I. eranskin gisa argitaratutako ereduarekin. Deialdiaren 3.4.f) idatz-zatiko egiaztapenik eza.
- Oskia Paternain Erro. Falta de acreditación del apartado 3.4.f) de la convocatoria.